

Año LIV urtea

N.º 96. zk.

2022



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

Erreseina.

Sorginkeriarena gurean

J. F. Elia

Sumario / Aurkibidea

Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra

Año LIV urtea - N.º 96. zk. - 2022

ARTÍCULOS/ARTIKULUAK

«La batalla de los muertos» de Juan Iturralde y Suit: en torno al mito nacionalista <i>euskaro</i> Javier Yániz	9
Roberos y peseros: artífices de las medidas del reino Ricardo Gurbindo Gil	29
Nuevas estelas discoideas en Sos del Rey Católico y Navardún (Aragón) Sara González Bravo	59
Propiedad, pastos y amojonamiento de Biurrun a través de las Ordenanzas de 1544 Naiara Uria Blanco	83
Una tiorba en Iruña en 1606 Ricardo Urrizola Hualde	107
Un <i>Verrus</i> del año 1869 en euskera salacenco Ekaitz Santazilia	121
El ritual del juicio, muerte y quema de Judas en Navarra y Álava José Ángel Chasco Oyón	149

NOTICIAS/BERRIAK

Piedra, tierra y memoria. Exposición permanente de estelas discoideas en la Casa de Cultura de Tafalla Alicia Irurzun Santa Quiteria	199
Ugaltarriak. Proyecto cultural sobre los suelos de cantos rodados del valle de Roncal María del Mar Larraza Micheltoarena	211

RESEÑAS / ERRESEINAK	215
----------------------	-----



Sorginkeriarena gurean

PAUL ARZAK, Juainas

Iruñea: Pamiela, 2022, 464 or.

ISBN: 978-84-9172-305-9

DOI: <https://doi.org/10.35462/CEEN96.15>

Ez da gaurkoa Juainas Paul Arzak historialariaren interesa sorginkeriaren gaiaz. Anitzez lehenago hasi bazen ere, 1999an jada *Brujería, frontera y poder* idazlana plazaratu zuen, eta ondotik *1610-urtea, Nafarroako sorginkeriaren mitifikazio maltzurri buruz* 2002an eta *El aquelarre, una invención afortunada* 2008an. Hizpide dugun liburua iragartzen zuten aurrekariak, doikabe. Ohiko bibliografia oinarrian (J. Caro Baroja, F. Idoate, Henningsen...), gaien sakontzen hasi zen, artxiboetan dauden agiriak, garaiko testu eta kronikak arakatuz eta ikertuz. Helburua. betiere, mendez mendez sozializatu diren hainbat kontzeptu, irudi eta gertakizun argitzea. Hondarrean, bibliografia oparoa oinarrian eta iker-lan eskerga eginez, agirietan azaldutako testigantzak, ebazpenak, iritziak eta kontrairitziak aztertuz eta erkatuz, asmakizunez erantzitako ikuspegi argigarri eta sinesgarria osatzea lortu du. Liburu honetan eskaintzen du dena, gaiaren inguruan euskaraz ondu den inoizko lanik garatuena.

Liburua banatuta dago hamazazpi ataletan. Lehenbizikoan, *Gai honen inguruko biografia pertsonala*, hain zuzen, bere gaiarekiko interes, erreferentzia eta atxikimenduaren berri ematen du. Ondokoetan, hitzen jatorrien nahasketa, satan, andereak, misoginia, talde-sorginkeriaren aurkako hiru uholdeak, epaiketa eta fede-autoak, epaileen arteko liskarrak, torturapeko aitortenak, erretzera kondenatuak, Elizaren eragina, Inkisizioa, akelarre hitza eta kontzeptuaren bilakaera maltzurra, sorgin-aztarna bakanak... Hamaka informazio eta datu zehatz, beste hainbeste protagonista eta gertakizunen berri.

Akelarre hitzaren bilakaera, adibidez, egileak garbi azaltzen du sorginkeriaren erabilpen maltzuraren muinean dagoela. Iturengo mutiko batek prozesu batean aipaturiko «aker larre» toponimoa (akerrentzat egokia, ez ardientzat; beste zenbait leku eta prozesutan ere agertu zena), talde-sorginkeriaren deabruzko ospakizuna izendatzeko erabilia izan zela, akerra deabruaren irudikapena izaki. Eta deabruarekiko harremana «sorgin» bihurtarazitako emakumeek zuketenez, ebazpena aurreikusita zegoen: atxilotetak, salaketak, torturapeko aitortenak, erretzeko kondenak, etxea eta ondasunak bahituak... Izua bazter guztietan. Garai bateko sorgintza tradizionala poliki poliki talde-sorginkeria bihurtarazi baitzuten, batez ere, XVI. eta XVII. mendeetan. Bilakaera horretan, anitz ziren eragile zuzenak, naski, baina egilearen aburuz, akelarrearen asmakizun maltzur hori gauzatzen, baita izua sustatzen ere, nagusienetarikoa Urdazubiko Monastegiko Aranibar abadea izan zen.

Testuinguru horretan «arazo sozioekonomikoak, politikoak edo erlijiosoak» faktore eraginkorrak aipatzen ditu; izan ere, estatuak, mugak, irizpide sozialak eta gizarte-antolamendua finkatzen ari ziren garaiak ziren. Ahantzi gabe, Nafarroako erresuma

konkistatu eta okupatu berria zela, eta erdigunean Nafarroa Garaia zegoela, baina baita erresumari zegozkion beste euskal lurraldeak ere; besteak beste, ondorioa jendarte zauritu eta arrakalatua izan zen, ahuldua, menpe aiseago edukitzeko egoera. Eta gizartearen osasun eta trinkotasunean emakumeen partaidetza soziala gakoa zenez, gailentzen ari zen botere misoginoa hura errotik erauzten bermatu zen. Ez da kasualitatea, autoreak dioten bezala, prozesatutako bi herenak emakumeak izatea. Euskalherrian bezalatsu Europa osoan.

Lan mardula, azalez eta mamiz, Paul Arzakek ondutakoa. Gaiari dagokionez, erreferente izateko maila eta osagaiak dauzkana.

J. F. Elia